

"2024ko martxoaren 18an, EMC FARCEko Dagoberto Ramos zutabeak bereizi gabeko tiro egin zuen Cauca departamentuko komunitate indigenen kontra, ondorioz emakume buruzagi heldu bat erahilda suertatuz. Biolentziaren arrazoia, haur baten errekrutatze-derrigortu baten saiakera zapuztea izan zen. Gobernu Nazionalak su-etenaldia bertan behera uztea eta erantzuleak jazartzeko agindua eman zuen. Guzti honek egoera larrian uzten du bake-prozesua, eta gobernuaren eta talde armatuen artean su ireki bat eragiten du, joan-etorriak eraginez, komunitate sumindua zaurituta edo hilda, konfinamenduak, kontrola eta lurralde-etzabaida eragile armatuen artean"

Euskal Ordezkaritza, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak eta eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordeak, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Alboan, Mugarik Gabe eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeek osatua,

Egoera honen aurrean, gure BABESA eta ELKARTASUNA adierazten diogu azken eraso hau zuzenean jasaten ari den Nasa herriari, eta babesa ematen diegu indarkerien biktima nagusiak diren gizarte-lidergoei, giza eskubideen defendatzaileei eta haien kolektiboari, herri indigenei, herri beltzari eta nekazari-komunitateei eta lurraldeetako gatazkaren birkonfigurazioari. Bizitza defendatzeko eta Kolonbian bakea eraikitzeke duen konpromisoa eta lan legitimoa aitortzen dugu.

Bogotan, 2024ko urtarrilaren 27an, adierazpen bat egin genuen, eta, zoritxarrez, indarrean jarraitzen du. Bide batez, martxoaren 18an Toribian, Kaukaren iparraldean, izandako gertaerak gogoratu eta gure adierazpenak tamalez erabateko gaurkotasuna duela baieztatzen dugu.

Gure KEZKA adierazten jarraitzen dugu ondorengo egoerengatik:

- Legez kanpoko talde armatuak daudelako lurraldeetan, eta landa-komunitateen aurkako indarkeriak areagotu direlako (indigenen, afro ondorengoen eta nekazarien kontra batez ere).
- Lurraldeetan bizitza defendatzeko bermerik eza.
- Gizarte-lidergoetan fokalizatzea mehatxuak eta indarkeriak.
- Gizarte- eta lurralde-kontrolako hainbat estrategia hedatzea, hala nola gizarte-lidergoen kooptazioa, mugikortasun-debekuak eta jokabide-arauen ezarpena, konfinamendua, etxeratze-aginduak.
- Narkotrafikoaren eta legez kanpoko beste ekonomia batzuen presentzia, herrialdeko indarkeria eta gatazka iraunarazteko ezinbesteko elementu gisa.
- Haurren eta gazteen erreklutamendua areagotzea, askotan behartua, edo kontrol- estrategia desberdinen bidez, hala nola mikrotrafikoa, engainua edo derrigortzea.
- Emakumeen, nesken eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria, gerra-arma gisa erabiltzea, ohiko estrategia da oraindik ere gatazkaren esparruan.
- Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPen arteko Bake Akordioa ez da behar bezala inplementatu, genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi diferentzialarekin. Gure ustez, erabateko bake-politika publikoaren aldeko apustua ez da posible izango akordio hori ez bada modu integralean ezartzen lurraldeetan.
- Gizarteko liderrek jasaten dituzten indarkeriek zigorgabetasun-maila handiak izaten jarraitzea, egile intelektualen ikerketa-, judizializazio- eta zehapen- prozeduretan aurrerapausorik eman gabe.

Egoera horren aurrean, Euskal Ordezkaritzak aitortzen du Kolonbiako Gobernuaren borondatea eta herrialdean egiturazko aldaketak eragingo dituzten politika publikoak definitzeko emandako urratsak, hala nola berdintasunari eta giza eskubideei buruzkoak. Ildo horretan, Presidentearen Zuzentaraua (2023ko 07. Zuzentaraua) zorientzen dugu, honek giza eskubideen defentsaren lana babestu eta aintzatesteko balioko duelako. Hori ezartzea erronka bat izango da, agertoki berriak eraikitzeko eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, kolektiboak eta komunitateak babesteko bide bat izan behar duelakoan gaude.

Ondorengo GOMENDATZEN dugu:

- Erakundeen arteko koordinazioa gauzatzea: babesteko eskubidea, berriro ez gertatzeko eskubidea eta komunitateen birbiktimizazioa ekiditeko, beti ere, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren esparruan.
- Landa-eremuetan erakundeen presentzia indartzea, gizarte-, ekonomia- eta kultura-garapenaren bidez, ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia aintzat hartuta.
- Komunitate indigenen, afrikarren eta nekazarien parte-hartzea bermatzea bake-prozesuetan eta baita garapen-planen definizioan eta ezarpenean. Garrantzitsutzat jotzen dugu plan horiek giza eskubideen, ikuspegi diferentzialaren eta generoaren ikuspegi oinarritua gauzatzea.
- Eragile armatueekin negoziazioek aurrera egitea, Erabateko Bakearen proiekturako ezinbesteko elementu gisa, Talde Kriminalak Justiziaren mende jartzeko Legeari bultzada ematea barne.
- Babes-ereduari buruzko eztabaida zabala eta parte-hartzailea bultzatzea. Egoki deritzogu babes kolektibo eta familiarreko mekanismoak indartzeari eta aurrera egiteari, eta, horretarako, premiazkoa da 2021eko 1139 Dekretua indargabetzea. Era berean, komenigarria litzateke ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia txertatzea, modu trasbertsalean.
- Talde etnikoen (guardia indigenak eta guardia zimarroiak) berezko babes- mekanismoak eta lurralde-kontrola indartzea, bai eta haien antolaketa-moduak eta gobernu propioak aintzat hartzea ere.
- Landa-erreforma integrala bultzatzea, Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPen arteko Bake Akordioaren 1. kapituluaren aurreikusten den bezala. Herri indigenen, herri beltzaren eta nekazari-komunitateen lurren birbanaketan aurrera egitea. Antioquiaren kasuan, kezka berezia sortzen du Medellinen lekualdatu eta Antioquiako Zenues Biktima Indigenen Elkartearen (ASPIZA) egituratutako 40 familia indigena zenusen egoerak, baita El Bagren (Bajo Cauca) predioen erosketan izandako aurrerapenak ere.
- Escazuko Ituna Kolonbiako Estatuaren barne-araudian sartzea.

#### **KONPROMISOAK:**

Euskal Ordezkaritzak Giza Eskubideen eta Bakearen defentsarekin duen konpromisoa adierazten du, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa eta laguntzeko eta elkartasuna adierazteko beste tresna batzuk indartzuz.

Delegazioak erabateko prestutasuna adierazten du Kolonbiako erakundeekin elkarrizketarako guneak mantentzeko. Aldi berean, bakean, justizia soziala, ingurumenaren errespetuan eta genero ikuspegi oinarritutako herrialde baten alde egunero lan egiten duten erakundeei, komunitateei eta kolektiboek laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Sinatzaileak: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza eta eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta Alboan, Mugarik Gabe eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak.

*"El pasado 18 de marzo de 2024 la columna Dagoberto Ramos de EMC FARC disparó indiscriminadamente contra comunidades indígenas del departamento del Cauca asesinado a una lideresa mayor indígena luego que la comunidad reaccionara por el intento de reclutamiento forzado a un niño, desatando que el Gobierno Nacional suspende el cese al fuego y ordenara perseguir a los responsables, situación que deja en grave estado el proceso de paz con esta guerrilla y generando un fuego abierto entre el gobierno y la guerrilla provocando desplazamientos, comunidad indígena herida o asesinada, confinamientos, control y disputa territorial entre los distintos actores armados"*

La Delegación Vasca, compuesta por la Dirección de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad y eLankidetzeta-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo del Gobierno Vasco, la Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Justicia del Parlamento Vasco, la Coordinadora de ONGD de Euskadi y las organizaciones Alboan, Mugarik Gabe y Zehar-Errefuxiatuekin,

Mostramos ante esta situación nuestro APOYO y SOLIDARIDAD con el pueblo Nasa que esta sufriendo directamente este ultimo ataque y sostenemos el apoyo a los liderazgos sociales, las personas defensoras de derechos humanos y sus colectivos, pueblos indígenas, pueblo negro y comunidades campesinas, principales víctimas de las violencias y la reconfiguración del conflicto en los territorios. Reconocemos su compromiso y su legítima labor en la defensa de la vida y la construcción de la paz en Colombia.

En Bogotá, a 27 de enero de 2024 realizamos una declaración que tristemente sigue vigente. Aprovechamos para recordarla y ponerla en actualidad después los hecho del 18 de Marzo en toribio, zona norte del cauca.

Continuamos Mostrando nuestra PREOCUPACIÓN por:

- La presencia de grupos armados ilegales en los territorios y el aumento de las violencias contra las comunidades rurales (indígenas, afrodescendientes y campesinas).
- La falta de garantías para la defensa de la vida en los territorios.
- La focalización de las amenazas y violencias contra los liderazgos sociales
- El despliegue de diferentes estrategias de control social y territorial, como la cooptación de los liderazgos sociales, las prohibiciones de movilidad e imposición de normas de conducta, el confinamiento, toques de queda.
- La presencia del narcotráfico y de otras economías ilícitas como elemento imprescindible para perpetuar la violencia y el conflicto en el país.
- El aumento del reclutamiento de niños, niñas y jóvenes, a menudo forzado, o mediante estrategias diversas de control como el microtráfico, el engaño o la coacción.
- La utilización de la violencia sexual contra mujeres, niñas y adolescentes como arma de guerra sigue siendo estrategia habitual en el marco del conflicto.
- La insuficiente implementación del Acuerdo de Paz entre el Gobierno colombiano y las FARC-EP con enfoque diferencial y de género. Entendemos que la apuesta por una política

pública de Paz Total no será posible si este Acuerdo no se implementa de manera integral en los territorios.

- La persistencia de altos niveles de impunidad en que permanecen las violencias que sufren las lideresas y los líderes sociales, sin avances en los procedimientos de investigación, judicialización y sanción de los autores intelectuales.

La Delegación Vasca reconoce la voluntad del Gobierno y los pasos dados en la definición de políticas públicas que generen cambios estructurales en el país, tales como las relativas a igualdad y derechos humanos. En este sentido, saludamos la Directiva Presidencial para respaldar y reconocer la labor de la defensa de los derechos humanos (Directiva 07 de 2023). Su implementación constituye un desafío y debe ser una vía para construir nuevos escenarios y proteger a las personas, colectivos y comunidades defensoras de derechos humanos.

#### Y RECOMENDAMOS:

- La coordinación institucional para garantizar el derecho a la protección, el derecho a la no repetición y evitar la revictimización de las comunidades, en el marco del Derecho Internacional Humanitario.
- El fortalecimiento de la presencia institucional en las zonas rurales mediante el desarrollo social, económico y cultural, con enfoque étnico y de género.
- La participación de las comunidades indígenas, afrodescendientes y campesinas en los procesos de paz y en la definición e implementación de los Planes de Desarrollo. Consideramos importante que estos Planes incorporen enfoque de derechos humanos, diferencial y de género.
- El avance en las negociaciones con los distintos actores armados como elemento indispensable para el proyecto de Paz Total que incluya el impulso a la Ley de sometimiento a la justicia para bandas criminales.
- El impulso a una discusión amplia y participada sobre el modelo de protección. Estimamos oportuno el fortalecimiento y avance hacia mecanismos de protección colectiva y familiar, para lo que se hace urgente la derogación del Decreto 1139 de 2021. Asimismo, sería deseable la incorporación del enfoque diferencial y de género, y su transversalización.
- El fortalecimiento de los mecanismos de protección y control territorial propios de los grupos étnicos: guardias indígenas y guardias cimarronas, así como el reconocimiento a sus formas de organización y gobiernos propios.
- El impulso de la reforma rural integral, tal y como prevé el capítulo 1 del Acuerdo de Paz entre el Gobierno colombiano y las FARC-EP. Avanzar en la redistribución de tierras de los pueblos indígenas, pueblo negro y comunidades campesinas. En el caso de Antioquia, es de especial preocupación la situación de 40 familias indígenas zenús desplazadas en Medellín y articuladas en la Asociación de Víctimas Indígenas Zenúes de Antioquia (ASPIZA), así como el avance en la compra de predios en El Bagre (Bajo Cauca).
- La incorporación del Tratado de Escazú a la normativa interna del Estado colombiano.

#### COMPROMISOS:

La Delegación Vasca muestra su compromiso con la defensa de los Derechos Humanos y la Paz mediante el fortalecimiento del Programa Vasco de Protección para Defensoras y Defensores de Derechos Humanos y otras herramientas de acompañamiento y solidaridad.

Manifiesta su total disposición a mantener espacios de dialogo con las instituciones colombianas y a seguir apoyando a las organizaciones, comunidades y colectivos que cada día apuestan por vivir en un país en paz con justicia social, ambiental y de género.

Firmantes: Dirección de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad y eLankidetzta-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo del Gobierno Vasco, la Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Justicia del Parlamento Vasco, la Coordinadora de ONGD de Euskadi y las organizaciones Alboan, Mugarik Gabe y Zehar-Errefuxiatuekin.